



## Artxiboko kontuak

2014ko udaberrian La Rochelleko lagun bi Lekeitioko Turismo Bulegotik pasa ziren; eta batek, Eric Grenierrek, komenta zuen 62-66 bitarteko udaldiak Lekeition pasa zituela, bere familiak Tala aldean alokatu zuen etxe batean. Esan zuen bere aita Dominiquek orduan ateratako argazki batzuk zituela; eta turismoko arduradunek artxibora bidali zituzten lagun biak, horretaz hitz egitera.

2014ko urrian 50 argazkiren kopiak ekarri zituen udal artxibora. Benetan be argazki ederrak, *Lekeitiarra* txurro-postuaren hau esaterako. Posible denean, agian 2015ean, ezagutzera emango dira Barandiaran aretoan.

Lekeitioko Udal Artxiboan aspaldi hartzen dira argazki zaharren kopiak. Zaharrenak dira momentuz interesgarrienak eta batez ere asko aldatutako edota desagertutako etxe, lantegi, kale, bazter, itsasontzi, pertsonaia, ohitura, eta abar. Kultur ondarea dira, herriaren bilakaera eta izaera erakusten dutenak, etorkizunerako ondo gorde eta guztion esku ipini beharrekoak.

Horrelako argazkirik baduzu, pasa zaitez artxibotik inolako ardurarik barik, edo telefonoz deitu, edo jar zaitez gurekin harremanetan posta elektronikoz bidez. Zure argazki/argazkien kopiak atera eta berehala bueltatuko dizkizugu. Esku artean duzun honako liburu hau argitaratzeko, adibidez, irudi asko behar dira. Lagundu iezaguzu.

Maite Garamendi  
Lekeitioko Udal Artxiboa  
946034100  
artxiboa@lekeitio.com